

ATEAK ZABALTZEKO JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: ORGANO 2019ko APIRILaren 5a

2019ko APIRILaren 5ean Musikenek Ateak Zabaltzeko jardunaldia antolatuko du **organo** espezialitatean. Bertan organo espezialitateko irakasle titular den Esteban Landart-ek parte hartuko du, bai eta ikastegiko ikasleek ere.

Nori zuzenduak?

Musikenen goi-mailako organo ikasketak egiteko interesa duten ikasleei. Beren familiakoak, lagunak edo irakasleak ere etor daitezke.

Bi motatako ikasleak egongo dira:

Aktiboak: Musikenen goi-mailako ikasketak egin nahi dituzten organo ikasleak

Entzuleak: jardunaldi hauetara etortzeko interesa duen edonor.

Jardunaldira etorri ahal izateko **erreserba aurrez egitea** ezinbestekoa da, gure webgunean eskura duzun **izen-emateko orriaren** bitartez.

Jardunaldiaren helburua

- Musikeneko ikasle izan nahi dutenei eta datozen irakasleei informazioa ematea, goi-mailarako sarrera probei buruz, bertan eskatzen den mailari buruz eta erreperitorio egokiari buruz.
- Ikastegiko ikasleekin Musikenen egiten den lana erakustea.
- Proba hori gainditzeko ikaslearen maila baloratzea, lantzeko proposatzen diren piezak entzunez.
- Proba gaindituz gero ikasleek zein ikasketa-plan izango duten azaltzea.

Jarduera egitasmoa

9.00. Ate irekien jardunaldiaren aurkezpena.

Oboe espezialitatearen ikasketa-planari buruzko informazioa. Osatzen duten irakasgaiei buruzko azalpena eta irakasleak aurkeztea. Sarrera probei buruzko azalpenak. Eraikinari bisita gidatua. Donostiako San Bizente elizara joatea.

10.00-13.00. Donostiako San Bizente eliza. Esteban Landart irakaslearen eskutik eskola irekiak Musikeneko ikasleei eta izena eman duten ikasle aktiboak (erreperitorio erromantikoa, sinfonikoa edo garaikidea). Organo sinfonikoa Cavaillé-Coll/1868 III+P.

<http://organos.gipuzkoakultura.net/html/organos/donostiasanvicente.html>

15.00-17.30. Donostiako Loiola elizan. Esteban Landarten eskolak jardunaldietako ikasle aktiboekin eta Musikeneko ikasleekin (erreperitorio barroko edo garaikidea).

<http://www.orgelbau-klais.com/m.php?tx=22>

20.00. Donostiako San Bizente elizan Musikeneko organo ikasleen kontzertua Organoak Plazara zikloaren barruan, obra sinfonikoak eta Félix Ibarrondori eskatutako "Entre Bóvedas" organo eta bi perkusio jotzailerentzat obraren estreinaldia.

Non

MUSIKENE Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia

Europa plaza, 2.

20018 Donostia-San Sebastián

Kontakturako telefonoa: 00 34 943.023.750

E-maila: info@musikene.net

Mapan ikusi nahi baduzu: <https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Informazio gehiago behar baduzu harremanetan jarri Teklatu instrumentuak eta Kantua Departamentu Buruarekin: Javier Pérez de Azpeitia jperez@musikene.eus